

# Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1992ko ekainak 12 / II. urtea / 28. zenbakia



## Azokak, hiperren beldurrez

Uztailaren erdialdean zabalduko dute Cordovillan Iruñerriko bigarren hipermerkatua, batzuren zoramenerako, eta besteen atsekaberako. Sortu ere, Iruñeko dendarien artean kezka larria sortu bait zuen lehendabizikoak, eta ez gutxiago bigarren honek, askoren uste-tan biendako lekua ez izanik. Eragina

eta konpetentzia gehien somatu dutenak denda txikiak izan dira, azokek, kasu, ongi eutsi bait diete eraikin erraldoi hauen eskeintza izugarriari. Hiru azoken artean, baina, Parte Zaharrekoa da egoera larriena duena, eta konpetentzia huts baina, ohituren aldaketa ez ote den etorriko beldur dira bertan.

*Amen eta omen*



### AINGERU EPALTZA

**J**an nazak/n'. Maria Goretti baino estuago den hiri hau abarrots haundirik gabe jasaten ari da elkar jatera gonbidatzen gaituen kanpaina presanfermineroa.

Nonahi ikus daiteke delako gonbidapena. Karrika eta plazetetan lehia egiten du gose grebalari urrun eta hurbilen berri eman edo hirugarren munduarenganako elkartasuna eskatzen diguten txartelek. Jaki-dendetan, berriz, supermerkatu haundienetan has eta botika ttikienetan buka, toki ikusgarria hartzen du, txorizo eta zerri-azpien artean zintzilik, Iruñeko etxeoandre jatorrentzako iradokizun.

Kanpaina, berez, zerrikiak merkaturatzen dabilen firma batek sustatua da, baina nabardura horrek ez nau bat ere engainatzen. Kanpaina-ko txartelean buru egiten duen neskaren irriñoak eta bereziki bere bularraldeko bihurguneak nabarmenerazten dituen zorioko kamisetaren esaldiak —'Jan nazak/n', erdaraz, bistan da— ez diote dudari biderik uzten. Eta dudarik izanez gero, neska irrifartsuaren atzean dauden mutilen karantzei ongi begiratu, ea ez ote duten garbi zein den zezenplazako korridetara eramanez duten merienda.

Hortaz, kanpaina arrakastatsua suertatzen bada —eta ez dugu zertaz ezetzik pentsatu behar—, diferenteak izanen dira aurtengo Sanferminak. Hasteko eta bat, 'riauriaua' burutzen ahalko da lehen aldiz hamabortz urtetan, Jaime zakurrak, gorporazioaren aitzinean, udaltzainak ez baizik txartelesko neskaren gisa uniformatutako UPNko militantes saldo paratuko baitu, jatekoari so bare daitezen ohizko zalapartariak. Zezenplazan ere, peñak inoiz baino baketsuago egonen dira, ez txanpainik ez irinik bota gabe, kamisetadunak eguzki aldeko tendidoetan paseatzen hasi orduko.

Baina ez dira autoridadeak izanen kanpaina honen onuradun bakarrak. Gizonezko nahiz emakumezko, zahar nahiz gazte, hiri honetako biztanleek oro badute zer irabazirik gonbidapenari kasu eginez gero. Zer eta, gibela urratu arte basoak tanga-tanga husteko partez —edo usteaz landa, hala nahi bada—, elkar mau-mau jateko egokiera.

Belaunaldiz belaunaldi amestua errealitate bilakatua. Nik zu-zuk ni etengabe aritzea, 6an etxaferua lehertzen denetik 14ean gorputzak lehertzen diren arte.

Eta dena zerriki firma bati esker.



## Gure aukerak

### ANTZERKIA



**Pai** antzerki taldeak 'Agujero de juegos' ('Jokuen zuloa') izeneko lana taularatuko du Berbinzana-ko karriketan zehar gaur, ostirala. Emanaldia arratsaldeko seietan izanen da.

**Gorakada** antzerki taldeak, 'Atxis Pun' izena daraman lana eskeiniko du bihar larunbata, hilak 20, Mutiloabeitiko (Aranguren) frontoian, arratsaldeko 20.30etatik aurrera.

### KIROLAK



**Mendi ibilaldia** antolatuko du Club Deportivo Navarrak datorren igandeko, ekainak 21. Aragues del Puerto-Ibon Estanes-Candanchuren artekoa izanen da, eta irteera igandean bertan goizeko zazpitan izanen da Conde Olivetotik. Izena emateko Jarautako lokalean.

### MUSIKA



**Balardi Balardi** eta Pottokarekin rock jaialdia izanen da gaur, hilak 19, Goizuetan, gabeko 11.30etan. Kontzertua Goizuetako gazte asanblada, Leitzako euskaltegia eta bertako euskara zerbitzuak antolatu duten euskal rockari buruzko ihardunaldi barruan kokatzen da.

**Hertzainak** eta Patagonia taldeak izanen dira larunbatean, ekainak 20, Leitzako herriko plazan, hauek ere euskal rockari buruzko ihardunaldien eskutik.

### ERRAN DUTE

**Lekuberrin tunela egitea Gazteluko plazan kristalezko teilatua paratzea bezalako da».**

**Gabriel Urralburu**  
PSN-PSOeko buruzagia

«Lapurren gisara aritu ziren gure etxean».

**Daniel G.**  
Goardia Zibilak lehertutako etxearen jabea

«Roldanena egia balitz Estatu krisia izango litza-teke».

**Jaime Ignacio Del Burgo**  
UPNko buruzagia

«Merckx-ekin nenbilela iruditzen zitzaidan».

**Miguel Etxabarri**  
Banestoko zuzendaria

## Sorginen dantzarekin

Zugarramurdin ospatuko dira bihar larunbata, urtero, udaren etorrerarekin batera egiten den akerrale festa. Kobazulo fama-tuetan, eta zazpirehun pezetaren truke, bertako giganteak, zantantzarrak, Izan musika taldekoak eta beste ikuskizunak izanen dira, egunsentirarte. Gero eta jende gehiago urtetik urtera, aurtentzako apartaketa eta guzti prestatu du Zugarramurdiko herriak.

Sorginen leize hauen fama bertan egiten ziren akelarretatik dator eta baita ere hango batzuei egin zitzaizkien epaiketa dela eta. Infernuko Erreka izeneko parajea da ezagunenetakoa. Bestaldean gelditzen dira Sorgin Leizeak, zikirorenak ere deituta, eta altura horretan Errekaren gaineko bi tunela zabaltzen dira.

Festaz aparte, eta gorputzak horretarako beta emanez gero, bisitaldia egin daiteke inguru barna, eta gaiatik atera gabe, Urdazubiko leizeak ere bertan daude, gertu. Sarrera nahiko estua



dute, baina barrutik oso konplexu eta adar anitzekoak dira. 120 metroko altuera dute.

Nahi izanez gero, ez galdu

aukera Sara eta Ainhua bisitatze-ko. Herri eta etxeak ederrak, zelai ikusgarriez inguratuta. Base-riak bere lehen lehengo erara.

Aukera ederra izanen du Patagonia talde hasberriak Hertzainak taldearen ondoan bere balioaren berri emateko.

**Hegoamerikako musika** izanen da Arbizun, 'Grupo Tolderia-ren' eskutik, igande honetan, hilak 21, eguerdiko 12.30etan. Ekitaldia Udaberri Jira Bira dela eta antolatu dute.

### BESTELAKOAK



**Esterribarreko Eguna** ospatuko dute heldu den igandean, hilak 21, Eugin. Goizeko hamarretan txirrindulari ibilaldia izanen da herrian zehar, ondoren meza, eta eguerdian ibarreko gazta eta txorizu dastatu ahal izango da. Herri kirolaren ondok, bazkari herrikoia izanen da

Irunberriko txarangak alaiturik, eta Manu Gomez eta Bittor Elizagoien bertsolariak eta Bixente eta Fermin trikitilariak arituko dira bazkalostean.

**Uharteko Euskararen Eguna** izanen da larunbata eta igande honetan. Larunbatez, haurrentzako jokuak igerilekuetan izanen dira arratsaldeko 16.30etan, eta gero pilota partiduak izanen

dira Uharteko frontoian. Igandea goiz-soinuekin hasiko dira, eta 11etan kalejira izanen da. Euskarazko mezaren ondok, herri kirola eta bazkari herrikoia, Xabier Silveira, Estitxu Arozena eta Estitxu Fernandez bertsolariekin, Arratsaldean, dantzaldia.

**Lakuntzako** Asteburu euskalduna prestatu dute honetan, eta gaur bertan, arratsaldean, 'Aiaupenarik!!' aldizkariaren banaketa egiten da herrian zehar. Larunbatez loregintzako tailerra izanen da goizeko bederatzietan, eta arratsaldean trikitilari, euskal poetea eta euskal afaria izanen da. Igandea, hilak 21, Altsasu eta Iruñeko gaiteroak arituko dira, Altsasuko dantzarekin batera. Eguerdian, herriko akordeolariak, eta arratsaldean, herri kirola: Ziordia Lakuntzaren kontra.

**Iruñeko Donibane** auzoko jaiak izanen dira asteburu honetan, eta gaur bertan, ostirala, itxaferua botako dute arratsaldeko zortzietan Ibarbidean. Ondoren, giganteak, gaiteroak, zenezuzkoa eta dantza berbena izanen da leku berean. Bihar, larunbata, argi-soinuak izanen dira goizeko hamarretatik aurrera, eta ondok, musika eta kalejira donibaneko peñarekin, euskal jaia, zenezuzkoa eta berbena. Igandean izanen da egun fuertena, eta azpimarratzekoak kalderete txapelketa, eguerdian Ibarbidean, eta 'Ortiz' folk musika taldearen emanaldia, gaueko 11etatik aurrera. Astearterarte, baina izanen dugu jaia.

### ASTEKO PERTSONAIA

#### Miguel Indurain



Txirrindularia

Hiru pertsonai hauen txokoa Hmereziko luke —nola ez!— Atarrabiako mutikoteak, baina itxurak gorde behar, eta zutabe hau eskeini diogu, askoz gehiagorako badela jakinda ere. Soinean arrosa dotore zeramala zioten kronikek, eta hala izan da azkenean: jantzi eta kendu nahi ez. Girokoa izugarria izan da, txirrindularitza Hinaulten garaia-rik ikusten ez zen nagusitasuna erakutsi duelako Indurainek. Arerioei inolako aukera ez ematerainokoa. Eta bretoiaren harrotasunik gabe, apal eta zintzo. Zapitxo gorria gehiagi gustatzen ez bazaio ere.

#### Luis Roldan



Goardia Zibilaren zuzendaria

Goardia Zibilaren zuzendaria Gaste honetako esames politiko gehienen sorburua izan da, 'Abc' Madrilako egunkariak argitaratzen emandako berriagatik. Informazio horren arabera, Luis Roldan Patxi Zabaleta HBko bozeramailearekin aritu zen hizketan Urralbururen inbestidurarako abertzaleen botoa lortu nahian. Horren truke ETA eta gobernaren arteko balizko negoziaketarako bilera eskeini zion Roldanek Zabaletari. Atzo, hain zuzen ere, foru parlamentari leitzarrak baieztatu zituen esandakoa, eta UPNk ikerketa bat eskatu zion Felipe Gonzalezi.

#### Miguel Sola



Futbolaria

Txantreako erdilari errubioak, Tazkenean, Osasunako baja ofiziala jaso du aste honetan. Azkenean, ez horretarako gogorik dugulako, gauzak argi eta garbi esateko garaia zelako baizik. Beti bezala, Ezkurak zuzentzen duen taldeak jokalariekin izan beharreko begirune nahikoa ez du erakutsi, eta duda mudatan ibili da jokalaria berritu ala ez. Izan ere, esamesak eta zurrumurru franko izan dira denboraldian zehar Solak jarraituko zuen ala ez, eta berak prest zegoela adierazten bazuen ere, ez da horrelakorik gertatu. Berarekin joango zaigu Osasunako azkenetako 'artista'.

### ADI !

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... **Xinguli Mangulu** haurrendako saioa.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 13.00etatik 13.45etara... **Informazio Saioa** Baztan. Malerreka eta Bortziritako informazioa. Elizondo, Bera eta Lesaka egunero.

#### HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Asteazkenan FMn 21.00etatik 22.00etara... **Gautxori** irratia saio musikala. Narrazioak.

#### RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarriketak, erreportaiak, musika.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.



mintzoak

## 'Guernica-ren' gaineko karta irekia

● Irakurri berria dut Madriliko Legebiltzarrean eskatu dela 'Guernica' koadroa izenez aldatzeko Gernikaratzen ez den artean. Eskaera honek berebiziko kezka sortu omen du Espainiako kultura ministroarengan, Goyaren 'Caprichoak' ere ez ote dituzte euskaratu behar izango. Zer dela eta Gernikaratu? Avignoneko jende prestatuak exigitzen al du, agian, halako 'demoiselles' itzultzea?

Aleister Crowley, munduko kristaurik gaitztoena izandakoak bere auto-hagiografian kondatzen du nola gaztetxo zelarik College-ko zuzendariak 'Coventryratu' zuen, hau da, beronek aginduta inork ez zion hitzik egin behar. Bost hilabete eman omen zituen isolamendu gorrian, maixu barneikaskideek orok ez ikusi eta ez entzutearena egiten ziotela.

Mende hasierako garaiak, demoisellesenak hor nonbait. Harremanak oraindino ukatu ez dizkidan lagun ingeles batek esan dit bere ustez 'Coventryratu' esamoldea jada ez dela erabiltzen. Haren jatorriaz ez dakiela, bestalde, baina balitekeela Lady Godivarekin zerikusirik izatea... Zerikusi zeiharrekoa naski; izan ere, Godiva andreak larrugorritan, munduratu zen gisan Coventryn azaldu behar izan bait zuen.

Azkenik, ingeles hiztegiatetik ateratzeko zergatia nonbait egotekotan Bigarren Munduko Gerraren memorian legokeela; lagunaren arrazonabideen arabera, germaniar hegazkinerik erabat txikitu hiria ez zatekeen ostrazismo gunerako berreraikia izango.

Kontuak kontu, lehenbiziko mende erdiaren urteak. Bigarreneko historia liburuek irakatsi digute Messerschmill 109 bonbaketariek entrenamendu gisa txikitu zutela Gernika. Lagunaren argibideen ordaina edo noan orain saiatzera asmatzen, ariketa modura (germaniarrena bezain gutxiegi, seguru) egun 'Gernikaratu' hitza hiztegiaren

balitz zer adieraziko ote lukeen.

Aitortu beharra dago ni ez naizela hizkuntzalaria, ezta politikaria ere, baina badakit 'estatutu' zertu den; eta hala nola 'estatutu' bait daiteke 'estatu bihurtu', halaber 'estatutu' badaitekeela 'estatu ttikito', 'estatutu' banaketa' oskarrena delarik... Beste hizkuntzetan burujabe eta burugabe noizean behin nahasten direla jakin ere badakit, baina burujabetasuna sujetao izanez. Oker

ez banago, bestalde, 'soberania' euskaraz soberan dagoenari dagokio, esaterako, Madrilén zera; ordea, gaztelaniar ez bezala, ez denari ezin zaio egokitu.

Gogora datorrit 'el Guernica' New Yorketik igorrita Madrilera zen eguna. Komunikabideen zarata eta ikusle ilada luzeak gorabehera, giroan halako zokoratze kutsua nabari zen. Aurten gaintutuxea dagoen konplexua bera. Aurten ia edozein bazterretara eraman lezaketek eskupulu gehiegirik gabe. Baina 'Gernikan munduratu' farregarritzat jotzen duenak Gernikaratu nahi ere...

Nik neuk ez daukat dudarik Euskal Herri libre batean, burujabetasunaren eguneroko tartean, 'Gernikaratu' hitzak balizkoak milaka kontradefinizio mereziko lukeela. 1992-ko Aberri Eguna egunaren inguruan asmatutakoek ez dute, ordea, 'Londreseratu-k' baino esannahi gehiagorik guretzako (ezta Buesarentzako ere; agian 1993-rako azken fundamantalisten babesleku izango den Gernikako Euskal Etxean 'Zirkuluaren Koadratura' izeneko artelan kubista izango dugu ikusgai. Bizkitartean sentsibilitate ezberdinetako lurraldean Sole Tura edo baten sentsibilitategabetasuna epaile).



Anjel Garcia Etxandi Idazlea


### KONTU GANBARA FRANTZISKARREI

XV mendean, Carlos I enperadoreak frantziskarrei eman zien etxearen zati handi bat, bertan eliza eta komentua egin zezaten. Orduan, Kontu Ganbara Tecenderiaseko etxe zaharrera eraman zuten. Komentuaren eliza, 1849an bota zena, oraingo eskolen aurrean zegoen, gutxi gorabehera, eta San Frantzisko kaletik Kale Berrira bitarte hori betetzen zuten. Bota zutenean jaio zen oraingo San Frantzisko plaza.

1912an, Gartzela eta Erret Kontseilua bota zutenean, plazaren plano egiteari ekin zioten. 1910an eraiki zen eskolen aurrean 'La Agricola' aseguru etxearen egoitza, eta hiru urte be-

randuago, 'Grand Hotel' paratu zen bertan. Honek itxi egin zuen 1934ean, zentritik «urrnegi» zegoelakoan, eta erabilera ezberdinak izan zituen orduetik aurrera, gaur egungo liburutegiarena izan arte.

Izen ezberdinak izan ditu orain arte plaza, eta lehendabizikoa Agustin Blasco, 1910ean udalak horrela izendatu bait zuen. Hala ere, izendapenak ez zuten jendearen aldetik onespenez izan, eta 1915an Eskoletako plaza izena agertzen da plano batean. 1916an, udalak berriro izendatu zuen: Vianako Printzipea plaza, baina jendeak dagoeneko San Frantzisko plaza deitzen zuen. 1926an udalak onartu zuen izendapena eta ofizial bihurtu.



Lehenago gartzelen leihotako bat.

JOXE LACALLE

## Iruñeko historiari leiho

P.U. / IRUÑEA

Aste honetan bertan zabaldu da Iruñeko Gotorlekuan San Frantzisko plazan egiten ari diren lanetatik ateratako hondakin arkeologikoaren erakusketa. Bertan Iruñeko historiaren zati garrantzitsua izango da ikusgai, inguru honetan izandako aldaketak biziki lotuta bait daude hiriarren bilakaerarekin. Erakusketak, hondakinez aparte, plazaren eboluzioaren azalpen didaktikoa erakutsiko du, eta baita planimetria berria ere, planoak eta argazkiekin batera.

San Frantzisko plazako lurrazpiko aparkalekuaren lanak direla eta, alde horretan mendetan zehar izan ziren eraikinei buruzko informazioa sailkatu eta osatu ahal izan da, lanekin batera egin diren azterketa arkeologikoei esker. Bereziki 1910ean bota ziren Gartzela eta Erret Kontseiluaren eraikinei buruzko informazioa jaso da, XIII eta XIX mende bitarteko hondakinak eta keramika zatiekin batera.

Behialako Gartzelaren hondakinak San Frantzisko eskolen inguruan dagoen aldean aurkitu dira, eta azpimarratzekoa da ho-

rien artean leiho baten hesia, ola batean egindakoa. Halaber, inguru berean, lurrazpiko eraikin berezi bat aurkitu da, bi metroko alturarekin, eta hamalau metroko zabalerakoa. Adituen ustetan aspaldiko kripta bat izan liteke, San Frantzisko eliza zaharraren azpian eraikia. Ondoan harrisi sendo bat dago, erdi aroko Erret Dorrearen zatia, hain segur.

Honekin batera, hamazortzi putzu beltzak agertu dira puntu ezberdinetan, mendez mende —Erdi Arotik— zabortege gisa erabilitakoak. Bi metrokoak sakonera, eta metro t'erdikoak zabalerakoa, bertara hondakin eta zabor guztiak botatzen ziren, eta behin garbituta eta sailkatuta, kerami puska franko —plater, edalontzi, kikara, pitxerra—, eta txanpon ezberdinak berreskuratu dituzte bertan lanean aritu diren arkeologoek.

### 1910-EAN ERAIKITAKO PLAZA

San Frantzisko plaza Parte Zaharreko bigarrena da zabalerari dagokionez, Gaztelukoaren ondotik, eta 1910ean lortu zuen egun duen zabalerakoa eta osakera. Orduan bota ziren Erret Kontseilua edo Entzutegia eta Gartzela. 1849an bota ziren San Frantzisko komentuen eliza, oraingo eskolen lekuan zegoena.

Erdi Aroko hiriarren planoan, gaurko plazak San Cernineko burgoaren hegoaldeko alde hartzen zuen, San Nicolaseko burgoarekin muga egiten zuen leku berean, hain zuzen. Gaurko Kale Berria San Cernineko harrisiaren luebakia zen, 1582an lurraz bete zena.

Erret Dorrea San Frantzisko plaza eta Salesen komentuen arteko gunea eraiki zen. Hasieran tegi bezala erabilia, ondoren erregearen lagunentzako etxebizitza gisa aprobetxatu zen, jardinarekin eta guzti. XV mendeko lehendabiziko zatian Kontu Ganbara paratu zen bertan.



Bertan aurkitutakoa XVI mendetik aurrerakoa da.

JOXE LACALLE



**N**afarroako Gobernuak hilaren 15an onartu zuen, bere gobernu batzarrean, Basa Faunaren Baberako lege proiektua, eta Parlamentura igortzea erabaki, han eztabaida dezaten. Bi iritzi kontrajarriren arteko konprome-

zua lortu nahi izan du gobernuak lege honen bidez: ehiza eta arrantza debekatzaren aldeko kontserbazionisten iritzia, batetik, eta ehiza ingurugiroaren babesaren gaintik dagoela pentsatzen dutenena, bestetik. Hala ere, lehendabiziko

kritikak sortu dira dagoeneko, bai ekologisten bai ehiztarien artetik, eta lehendabizikoek arazo eta hutsune zehatzak azpimarratzen dituzten bitartean, ehiztariak oposizio tinkoa iragarri dute legearen aurka.

## Basa faunarako legea, Parlamentura

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Lege honek elkarte foralean zegoen hutsune legala beteko du, askotan azpimarratu bait da gai honi buruzko arautegirik eza. Izan ere, 1970ko Ehiza Legearen berritapena izango da honakoa, eta Espainiako espezieen kontserbaziorako oinarritzko legetik, 4/89 izenekoa, eta Europar indarrean dauden zenbait legetatik jasotzen ditu artikulua eta adierazpen franko.

Espainiako lege hau oso aurreratu jotzen zen bere garaian, baina elkarte eta lurralde ezberdinetan dauden arautegi ezberdinak direla eta, askotan ez da bete ahal izan. Europakoekin antzekorik gertatzen da, eta lege hau da lurralde autonomoan muga hauek gainditzeko egiten den lehendabiziko ahalegina.

Hala ere, ingurugiroa babesteko orduan agerian dagoen hutsunea kritikatu dute bereziki ekologistek, ez bait da horretaz gauza zehatzik aipatzen. Batzuen ustetan, baina, arlo zabal guzti hori beteko lukeen legea oso zaila litzateke gaur egun, lurraldekako ahalmenak eta azalduko bait lirateke bertan. Aterabidea Europar onartzearen dagoen ingurugiro legealdiaren bidez etorriko litzateke.

Legearen zioak aipatzerakoan,

ehiztari eta ekologisten artean dagoeneko eztabaida sortu duen adierazpena agertzen da: «lege honen bidez konpromezu bat lortu nahi da bi jarrera kontrajarriren artean, hots, basa faunaren kontserbazio sakona eskatzen dutenena, ehiza eta arrantza debekatzarainokoa, eta ehiza eta arrantza lehentasuna -ingurugiroaren defentsaren aurretik- duen esku-bidetzat jotzen dutenen artean».

**BAESTUTAKO INGURUGIRO URRIEGI**

Lege honi dagoeneko egindako beste kritika ingurugiro babestuei buruzkoa da, ekologisten ustetan «urriegia». Gogoratu behar, Nafarroan, eta 1987ko apirilaren 10eko Lurraldearen Babesa eta Erabilerarako Legearen arabera, hiru erreserba integral daudela: Lizardoiakoa, Otsagabiako dermioan; Ukerdikoa, Izabakoan, eta Aztaparretakoa, Izaban hau ere. Natur erreserbei dagokienez, hogeitamazortzi daude onartuta, Nafarroa osoan banaturik.


Legea, esan bezala, gobernuak onartu zuen, eta orain Parlamentura bidaliko du eztabaidatzeko eta, hala suertatuz gero, onartzeko. Kontutan hartuz uda datorrela eta Parlamentuko oporrak ere izango direla laister, udazken aldera onartuko da legea.

Ekologistak zein ehiztariak



Basa fauna eta ehizaren arteko oreka lortu nahi da.

bat datoz legea onartu, onartuko dela esaterakoan, baina azken testua dezente alden du daiteke orain dagoenetik. Izan ere, ehiza federazioak lege honen aurka gogor egingo duela iragarri du, eta Ignacio Aiestaran bere presidentek adierazi duenez, bilerak hasiko dira alderdi politiko guztiaren beren eskakizunak azaltzeko. «Bide horretatik ezer gutxi lortzen badugu, ez dugu baztertzeko herri ekimena bultzatzea, eta lege honen aurka hogeitamar mila sinadura edo aurkeztea».



## Kontrapasa ezabatuta, lur eremuen jabeek ehiza debekatzeko izango dute

M.K. / IRUNEA

Ehizari buruzko arautegia izango da, ezin uka, lege honen punturik eztabaidatuena. Bertan zehazten dira ehiza eta arrantzak dituen mugak, barrutiak, isunak, erantzukizunak eta ehizaren ekoizpen industrialak.

Legearen gauzarik adierazgarrienetako bat, beste araudietan ez bait zen biltzen orain arte, lur eremuen jabeek ehiza debekatzeko duten ahalmena. 62 zenbakia daraman artikulua jasotzen duenez, ehiza barruti publikoetatik kanpo geldituko dira lurra-

jabeek ehiza egiteko eskubideari uko egiten baldin badiote. Horretarako udalaren aurrean aurkeztu beharko du jabeak eskaera, eta barrutia ehizarako debekua arautzen duen erregimenak aginduko du.

Halaber, kontrapasan aritzeko debekua ezartzen du legeak, iaz hainbeste esames eta adierazpen eman zuena, alegia. Barruti pribatuak sortzeko Ehiza Plagintzarako Egitasmoa beharrezkoa izango da, eta barrutiak jagole nahikoa beharko du izan.

64 zenbakia daraman artikuluan zehazten denez, enkantean

**Ehiztariak «ezin txarragoa»; ekologistak, bereizturik**

M.K. / IRUNEA


Legeak, ekologisten zein ehiztarien aldetik, alegazio franko jaso zituen, baina, dudarik gabe, kontrako jarrerarik gogorrena ehiztarien aldetik sortu da. Ignacio Aiestaran bere presidentek esan duenez, beren iritziz «ezin txarragoa» da. «Hogeitasei alegazio aurkeztu genuen, eta bat ere ez da jaso proiektuan». Bi puntu kritikatzeko dituzten ehiztarien federazioak. Bata: legean ezer gutxi jasotzen da ehizaren gestioari buruzko egitasmoaz. Eta bestea: ezin da ehizaren garapenaz hitzegi, ingurugiroaren babesari buruz hitzegi gabe. «Lege honetan ez da horretaz ezer aipatzen» dio Aiestaranek. Ekologistek aurkeztutako alegazioetan ingurugiroaren defentsarako neurri zehatzik eza aipatzen zen, fauna babesteko edozein arautegiren oinarria, haien ustetan. Horrela, Tuterako Landazuria taldeak ez deritza proiektuari «nahikoa», eta, adibide bezala paratzen ditu aipatzen diren zonalde babestuak. «Egun daudenak dira, ez gehiago, eta hori, gure ustez, oso urria da».

ANAT-LANE taldeak, bere aldetik, oso aurreratu jotzen du legea, nahiz eta ingurugiroa babesteko neurriak buruz hutsa onartzen duen. «Garbi dago ez duela ezertarako balio hogei hartz izateak, haiendako toki aproposik ez badaukagu. Hori da legearen huts handiena. Hala ere, gure ustez, legearen irakurketa posibilista egin behar da, eta gaur egun ingurugiroak babesteko legea ia amets bat da.



Ehiztariak ez dute begi onez ikusi legea, eta oposizioa iragarri dute.





Zenbait hondakin zakarretara botatzen dugunean, bizitza-ziklo berri bat hasteko aukera galtzen ari gara. Hondakin soliduak birziklatzeak, papera, beira, plastikoak, metalak eta abar aprobetxatzeko aukera ematen digu... beste berri batzuk egiteko. Material horiek besteetatik bereizten badituzu, lagundu egingo duzu errekurtsio naturalak hobeki erabiltzen, energia aurrezten eta ingurugiroa zaintzen.

# Birziklatzea bizia ematea da





## Gazteendako Zokoa

### Mika

*Pica pica*

Arraultzak eta txori-kumeak jaten ditu  
Pitxi eta distira duen  
guztia du gustoko



### Ezaguna oso


Ederki ezaguna, oso arrunta da hirietan, primeran egokitu bait da bertako ingurugiroarekin. Gorputza txuri eta beltza, bere isatsa luzea frankotan ikusten da jardinetan eta parketan.

Ehiztariek asko gorrotatzen dute, ehizarako aproposak diren beste espezieen arraultz eta txi-toak jateko ohitura ez bait diote barkatzen. Hori dela eta, haiengan du arerio gogorra. Hala ere, bere elikadura oso anitza da, eta insektu, sugandilak, basafruitu, bikorrak eta baita haratustela ere jaten ditu.

Goikaldetan aritzen delarik, oso oihu adierazgarria botatzen ohi du, eta egunez bikoteka edo talde txikitan biltzen bada ere, gabez, talde handietan antzeman daiteke. Neguan, kasu, ohizkoak dira berrogeitik goitiko espezie-tako taldeak.

Oso ezaguna da ere pitxiak eta distira duen gauza guztiekiko duen atxekimenduagatik, bere txofrakian paratzeko, eta hori dela eta 'lapurraren' fama ere badu.

Nafarroan oso banatuta dago, baina ugariagoa da erdialdean, eta iparraldean eta Piriniotan urriagoa.



## Natura

### IRENE INDAKOETXEA

Natura maitasunaz eta adiskidetasunaz gain munduan eduki dezakegun gauza hoberenetarikoa bat da. Natura guztion sorgunea da. Naturaz hitz egiterakoan iparraldeko inguruneaz ari naiz hizketan zeren eta niretzat txaparroak, sasiak... ez dira bizirik dirauen naturaren ezaugarriak hildakoarena baizik, lehorgunean beraiek betetzen dituztelako.

Iruñetik hegoalderantz joanez gero, paisai berdina ikusiko dugu beti: biluzik dauden mendiak, sasiak besterik ez dituzten erreka ohien ildoak... hiru hitzetan esanda: bizirik ez duena.

Iruñetik iparralderantz abiatzen zarenean, ordea, bizirik dirauten mendiak ikus daitezke oraindik, aire osasuntsuaz inguraturik dauden mendiak eta inguruak, soro emankorrek... Bizia.

Mendira joanez gero, iparralderantz, era guztietako soinuak

entzungo dituzu (txoriak, kilkerak...): lekuak bizirik dirauen seinaleak.

Ikus dezakezuenek, nik ez ditut idortu eta hilda diruditen pai-

**I**ruñetik iparralderantz abiatzen zarenean, bizirik dirauten mendiak ikus daitezke oraindik, aire osasuntsuaz inguraturik dauden baserri eta inguruak, soro emankorrek: Bizia.

sasiak atsegin, nik bizia atsegin dut.

Aitaren herrira joaten naizenean, Beruetera, niri atsegin zaidan paisaiasetzen naiz. Ez dago horrelako paisaia ikustea be-

zalakorik astean zehar metatutako tentsio eta lanaz ahazteko. Ederki lasaitzeko aukera dauka haruntz abiatzen den edonork.

Urtaro ezberdinetan joanez gero zuhaitzek eta mendiek era ezberdinez hitzegiten digute:

Udaberrian, mendietan edozein kolore mota ikus daiteke: morea, txuria, horia eta batez ere berdea.

Udan, pago, haritz eta gaztainondoan artean higitzen den haizea baino freskagarriagorik non ote?

Udazkena gorri kolorea atsegin duenarentzat egokia da, Basaburu inguruan aurkituko bait dituzue gorri mota guztiak. Eroritako hostoek osatzen duten 'alfonbra' kirrikatsua mila misterio ezkututzen dizkigu.

Neguan, zuriz jantzita aurki dezakegu guztia.

Egun lasai eta erakargarri bat pasa nahi baduzue zoazte Basaburu aldera eta kontatuko didazue. Nitaz fida zaitezte.



### BASAJAUN

Rioko konferentzia amaitu ondoren orain dela bi aste idatzitako kritikak egiaztatu dira, han aritu direnen jarrerak eta erabakiak behin ezagututa eta zehaztuta.

Bai EEBBen ezetzak nola beste estatutako agintariek azaldutako zenbait keinu eta jarrerak nahiko adierazgarriak dira han gertatu-koaren berri ematerako orduan.

Ekologiaz eta biodibersitateari buruz aritzen ziren bitartean, han kontsumitzen ziren produktuen artean, zelulosakoak eta sprayak bazeuden asko. Burokraziaren inguru-manguru guzti hauek aipatu izan ditugu lehenago lerro hauetan, behin baino gehiagotan, ekologiaren guda irabazteko ekologisten eskuetan dagoela, eta ez dirudunen edo militarren eskuetan esan dugunean.

Horregatik, Erreka taldeak egunotan Euskal Herrian antolatutako hamabostaldi ekologikoa guztiz beharrezkoa izanen da gauzak bide zuzenetik abiatzeko, eta ilusioz beterik, gure lurraren defentsan lanean jarraitzeko. Bide berriak zabalduko dira ekologista guztien batasunarekin.

Gure esku dago hamabostaldi honen garaipena eta balioa. Eman dezagun gure aldetik dagoen guztia ekologia eta bizitza berri baten alde, eta ekintzarako modurik egokiena egiten diren gauzetan parte hartzea da.

Denok batera, joan gaitezen hitzegitera, gauzak aldatzera, deba-te eta eztabaidak sortzera, eta horiek berrituta, altxa gaitezen gizar-te honen aurka, noizbait izan genuen indarrarekin, tinko. Aurrera, munduko ekologista guztiak! Gora euskal natura! Irabaziko dugu! Gizakumek merezi ote du?

### KAZKARROAN

### Jenero xumekoak

#### □ Klaus Kinskik Aranoko andregai surrealista bati

Ilunabar batean, urez koloreatu zenituen errekek, ea igelek hainbeste junkaditan oroimenezko xare bat brodatzen ote zuten.

Eta polita izan zen zein eliz dorretan zetzan dorrea jakin ez izana, harez geroztik gaueko taxistak ez bait dira zure begietako idoi ilunetan bilutsik bainatzen.

Gazta batean hasitako harrobi bat bezalakoak ginen, ni galerna bat noraezean eta zu moja bat pixa egiten. Denbora xarmanta izan zen laranjazko patoetarako.

### JUANTXO URDIROZ

### BOSTEKO TTIPIAK

Zenbaki bakoitzeko hitz bakar bat eta bera

1. Herri nafarra
2. Portuak
3. (Inf.) Gaingitu
4. (Subj.) Naiz
5. Aldrebesa

1	2	3	4	5
1	2			
	2			
3				
		4		
5				

1. Herri nafarra
2. Hostoa
3. Mirakulu
4. Jaurtiketa
5. Zuhaitz motak

1	2	3	4	5
1	2			
	2			
3				
		4		
5				

1. Herri nafarra
2. Zurgin
3. Leporatu
4. Abandonatua
5. Hezituak

1	2	3	4	5
1	2			
	2			
3				
		4		
5				

### Zaharrak berri

*Ete guzietan labatzak beltzak.*  
Guzietan izaten aldi beltzak, txar-  
rrak.

#### Oskotz (Imotz)

*Hobe da behin gorri, ezen ez beti hori.*

Hobe da behin zorrotz izan, beti erdizka ibiltzea baino.

#### Baztan

Harakinak bezeroari:

—Gero eta haragi gutxiago jaten da. Egunero ardi bat hiltzen dut eta ez dut erdia ere saltzen.

—Tonto halakoa, zergatik ez duk erdia hiltzen?



## Bizi Bizian

**I**ruñerriko lehendabiziko —eta Nafarroako bigarren— hipermerkatua duela sei hilabete zabaldua, uztailean irekiko ditu ateak mota honetako bigarren zentruak Cordovillan, enpresa frantziar baten eskutik. Eraikuntza erraldoi hauek kezka handia sortu zuten hasieran dendarien artean, baina eragina, nonbait, denda txikien artean soilik nabari da, merkatu eta supermerkatuetan ez bait da apenas somatu. Azokak izan dira, hain zuzen ere, orain arte erosketak egiteko modurik ohizkoenetakoa, eta horiek eutsi egin diote hiperren konpetentziari, zenbait arazo eta kezka agerian izanda ere.

# Azokek eutsi egin diete hiperrei

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Iruñean oraindik bizirik dirau dendaz denda erostera joateko ohiturak, betidaniko fama eta izena lortua duten etxez etxe, aspaldiko zaporea dutenak. Casla, Murillo, Ortega, Mañueta etxeak edota Santo Domingoko azokak, Nafarroa osoan ziren eta dira ezagunak.

Iaz Eroski enpresak zabaldu-tako hipermerkatuak kezka bizia sortu zuen ez bakarrik denda txiki hauetan, baizik eta merkatu eta supermerkatu frankotan. Izugarriko eskaintzak, publizitate handia eta prezio ezin hobeak ziren enpresaren aldeko kartak, baina urte erdia dagoeneko zabaldua ez omen du espero zen adinako eraginik izan, edo ez, behintzat, merkatuetan.

Izan ere, hasieran beldur handiena zuten dendariak, Iruñeko hiru merkatuetakoak, —Santo Domingokoa, Donibanekoa, eta Amaia kalekoa—, ez dute aparteko aldaketarik somatu, ez behintzat salmentetan. Beldur eta kexu dira, baina, administrazioa ematen ari den erreztasunak dirrela eta, baina baikor dira: «hiperrek ez dute inoiz gure kalitatea eskeiniko».

Patxi Goñi Asomerca erakundearen —Iruñeko harakinak biltzen dituen— bozeramailearen esanetan, hiperrak, berez, ez dira arriskutsuak azoketarako «bertako saltzaileak oso espezializata daudelako. Hiperren presentzia, ordea, supermerkatuek eta elikagai denda txikiek somatuko dute».

Amaia kaleko merkatu berrian beldur handia zegoen haste hastetik hipermerkatu zirela eta, baina salmentak ez dira jaitsi, eta ez da posturik itxi. Marivi Zabalo fruta saltzen du bertan, eta hasieran «izua» zuela onartzen



Hipermerkatuen kontrako argudioak kalitatean oinarritzen dira.

badu ere, ez du aparteko eraginik somatu orain arte. «Rastroa irekitzen dutenean jaisten dira salmentak, baina hiperrarekin ez dugu ezer nabaritu. Hori bai, Mercairuña asko jeitsi da, baina hemen, oraingoz betiko martxan gabiltza. Hiper berriarekin, baina, ikusiko dugu...».

Merkatu Zaharra da, akaso, eragin handiena nabaritu duena, batez ere herrietako jende asko heltzen zelako horra. Horiek dira, hain zuzen ere, hiper berriaren berezirik handienak. Andres Urrotzek barazki postua du bertan, eta zentru berria zabaldu zen lehendabiziko hilean jaitsiera somatu zela azaltzen du, eta zenbait postuk itxi badute ere, egoera normala dela dio. «Hasieran, jende falta baino, diru falta somatu zen, agian jendeak uste baino gehiago gastatu zuelako hiperrean, baina gure bezeroek bada-

kite zer topatuko duten hemen, eta hori ez dute han aurkituko».

### KALITATEA ETA HARREMANAK

Hain zuzen ere, kalitatea eta bezeroekin harremanak dira merkatuetako saltzaileek erabiltzen dituzten argudioak beren eskaintzak nabarmentzeko orduan. Juan Ramon Burguete Donibaneko merkatuko harakinaren esanetan hiperra ez da, «oraingoz», kompetentzia haiendako, «han ez bait dago kalitaterik. Prezio onak bai, baina askotan marketingarekin ezkutatzen dute benetan dagoena». Urrotz askoz zuzenagoa da: «Hiperrek ez dute arrakastarik izango, elikagai denden arloa oso antolatuta bait dago Iruñean. Supermerkatu franko daude, izugarriko eskaintzekin, eta merkatuetan aurki daitezkeen produktuekin ezin dute lehian sartu».

Goñirentzat ere ez dago hainbeste eskeintzatarako lekurik, baina ez du uste azokek jasango dutenik hiper berriaren eragina. «Hori beste hiperrak jasango bait du. Gu orain arte bezala ibili bagara, orain ez da aldatuko».

Inkestatu guztien arabera, baina, garbi somatzen da ohiturak aldatu daitezkeen beldurra, hiperrera joateko joera berria dela eta. Iruñeak, orain arte, oso tradizio finkatua izan du denda txikiekin, espezialitatearekin, eta Santo Domingoko merkatuko Mendia anderearen esanetan lehen emakumeak merkatura etortzen ziren «pezeta bat merkeago zen letxuga baten bila». Orain, ordea, komoditatea askoz handiago dela nabarmentzen du. «Orain ostiral eta larunbatetan oraindik badago jende asko, baina astean zehar nabarmen jaisten da».

## Santo Domingokoa, larriena

P.U. / IRUÑEA

Santo Domingoko merkatua da, dudarik gabe, hiruen artean egoera txarrena duena, ez hainbeste hiperrek kendutakoa dela eta, baizik Parte Zahar osoak duen egoera larriagatik. Apar-kaleku falta, populazio gero eta zaharragoa, eta inguruetako herrietako bezero falta dira, gehien ustetan, arrazoiak.

Maria Mendiarendako, apartekaleku falta da merkatuak bizi duen egoera zailaren sorburu. «Hori da izorratzen gaituena» azaltzen du, hutsik dagoen bere harakinaren barraren bestaldean. «Lehen udaltzainek ez zuten aparteko trabarik paratzen aparteketako, baina orain, kotxea uztea ezinezkoa da, eta herrietako jendea ez da etortzen. Salmentak asko jaitsi dira». Andres Urrotz, poltsa bat barraskilo saltzen duen

bitartean —'navarricos' motakoak, mila eta berrehun pezeta-tan—, ORA paratzearen alde agertzen da. «Hori leku askotan ikusita daukat nik, eta primeran dabil denetan».

Apar-kalekuaz aparte, merkatuari berari beste tankera eman beharra azpimarratzen du saltzaile guztien ordezkaria dirudienak. «Postu bakoitzean saltzen diren produktuek anitzagoak behar dute izan, jendeak gauza gehiago erosi ahal izateko».

Hala ere, denak datoz bat hiperrei administrazioak emandako laguntzak eta erreztasunak kritikatzeko orduan. «Ni ez nago hiperren aurka —dio Patxi Goñik—, baina bai horrelako erreztasunak ematearen aurka. Dela lurra, direla errepide egoki eta hoberenak, direla dirulaguntzak, dena ematen diete, eta guretzako deus ez».



Zenbait postu itxi egin dira azkenotan Santo Domingon. JOXE LACALLE



Javier  
Arbunies

.....ekologista

## «Riokoa? ingurugiro ikastaro garestiena»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

**EGUNKARIA.**— Rioko bilkuran bereziki bost hitzarmeni buruzko nolabaiteko 'akordioa' lortu da. Agenda 21 deitutakoa, Rioko deklarazioa, basoen babesari buruzkoa —hiru hauek ez derrigorrez betetzekoak—, aldaketa klimatikoari buruzkoa, eta bioaniztasunari buruzkoa. Ekologisten ikuspuntutik, zer balorazio egin daiteke bilkurari buruz?

**JAVIER ARBUNIES.**— Hemendik ikusita, Rioko bilkura historiako ingurugiro ikastaro garestiena izan da. Hau da, bereganatu du jendearen interesa, gaia denon ahotan egon bait da egun guzti hauetan, baina benetako efektibitatea duten hitzarmenik, nik uste, ez da lortu. Ez behintzat zuzenean. Agenda 21 deitutako hitzarmenaren asmoak oso onak eta politikak dira, baina arazo bat dauka, ingurugiroaren arazo larriena, bide batez: ez du finantziabiderik. Ingurugiroaren babesa garestia da, bi eratarik: batetik, edo kitatzen dizkiegu zorrak estatu pobreei, edo laguntzak ematen dizkiegu; eta bestetik, gure kontsumoaren beraren kostuak ere kontutan hartzekoak dira.

Rioko deklarazioa Giza Eskubideen deklarazioa bezalakoa da: ongi dago, oinarri bezala, baina ez da praktikoa. Basoei buruzkoarekin, berdintsu.

**EGUNKARIA.**— Asko hitz egin da bilkura honetan EEBBk izandako jarrerari buruz. Zein izan da jarrera honen benetako garrantzia hitzarmenak eta bilkura bera baldintzatzeko orduan?

**ARBUNIES.**— EEBBentzako izugarriko kostua litzateke hasieran mahai gainean zeuden gaiak onartzea, eta atzetik ere multinazionalak zeuden, jakina. Bioa-

niztasunari buruz txostenaren oinarrietako bat multinazionalen kontra zihon, hango produktuak estatu atzeratuak beraiek kudeatzeko eskubidea aipatzen bait zuen. Hala ere, hemendik ere nahiko jarrera sinesgaitzak eraman dira. Espainiako ordezkariak, adibidez, zera esaten zuen: oraindik orain Alemaniak baino gutxiago kutsatzen dugunez, gure martxarekin jarraitu behar dugu. EEBB, gaizki, baina beste guztiak ere bai.

**EGUNKARIA.**— Hala ere, bilkura honekin, jendea arazo larriaz jabetu egin dela dirudi.


**ARBUNIES.**— Bai, hori egia da, jendea jabetu egin da, baina hori eta praktikaren artean badago alde. Jendea konturatu da arazoak badaudela, baina arazo horietako asko —basoak, CO2, eta abar— oso urrun daude eguneroko bizitzatik, eta besteen esku daudela iruditzen zaigu. Azkenean, agintariek erabaki beharreko arazoak dirudite, eta hauek oso txarrak direnez, ez dago zer eginik... Arrazoiak hain onak izan daude askok egin du. Eta ez dakit nola alda daitezkeen, mugimendu ekologistatik ez bada. Eta ez dakit hainbeste indarra dugun ere.

**EGUNKARIA.**— Rioko bilkura dela eta, Erreka plataforma osatu da Euskal Herrian. Rioko bilkurarekin batera desagertuko da, edo urrunago joateko asmorik badago?

**ARBUNIES.**— Ez, Erreka Rioko bilkura baino zerbait gehiago da. Plataforma ekologismoaren historiari buruz ihardunaldietan jaiotzen, eta han bildu zen ekologismoaren etapa guztien partaide izan den jendea franko. Orduan, mugimendu ekologistarekin zerbait egin beharra nabari zen, eta hortik sortu zen esaldi famatua: 'Helburu orokorra, ekintza loka-

**R**ion egindako mandatarien bilkuratik ez urrun, erakunde ez gubernatarren artean, ekintza bateratuak egin beharra azpimarratu zen, eta Euskal Herrian Erreka plataforma sortu zen hori zela bide. Bertan

euskal talde ekologista ia gehienak bilduta, koordinazio egitasmoak eta proiektu zabal eta garrantzitsuak egiteko aukerak aztertuko dituzte heldu den udazkenean. Errekaren partaidea dugu Javier Arbunies Gorosti taldekoa.



JOXE LACALLE

la'. Orain egin dugun kanpaina hori izan da, bakoitzak ahal duena egitea.

Era berean, Erreka plataformak berak hausnarketarako bidea jorratu nahi du, eta udazkenean egingo diren Ekotopaketetan, mugimendu ekologistaren iragana, gaurkoa eta geroa aztertzea nahi dugu, proposamen zehatzekin. Badago jarraitzeko gogo, baina zaila da asko eta anitza bait gara.

**EGUNKARIA.**— Eta zein dira ekologismoa berriro biltzeko oinarriak eta oztopoak?

**ARBUNIES.**— Talde bakoitzak orain arte egin duen lanari jarraitu beharko dio, nork bere eremuan. Horretaz gain, koordinazio izateko eremuak ere badaudela uste dugu: adibidez, informazioa banatzerakoan, kanpaina bateratuak egiterakoan, egitasmo handiagoak egiterakoan... Hori lortuko bagenu, proiektu orokorrekin hasiko ginatke: uraren gestioa; nekazaritza politika; kutsadura industrial; hirietako trafikoa, eta abar.

Adibidez, bi egitasmo nahiko zehaztuta daude, denon artean

egin daitezkeenak. Lehendabizikoa da zonalde hezei buruz proiektu bateratu egitea. Hor sartuko lirateke, Txingudiko (Bidasoa) arazoa, Bilboko portu erraldoia; Arabako zonalde hezeak, Nafarroakoak... Bigarrenak parke naturalaren gaiarekin ere zerbait egitea izango luke asmoa, orain nahiko pilpilean dagoen asmoa bait da. Orduan,

**T**alde ekologista guztien arteko koordinazioa lortuko bagenu, proiektu orokorrekin hasiko ginatke: uraren kudeaketa, nekazaritza politika, kutsadura industrial, hirietako trafikoa, eta abar.

idea hori litzateke, tokiz tokiko lanetik gauza handietarako pasatzea. Hala ere, oraindik hasi besterik ez dugu egin, eta oraindik ez dakigu zer atera daitezkeen hemendik.

**EGUNKARIA.**— Eta euskal ekologismoaren historia kontutan harturik, bideragarria iruditzen zaizue asmoa, historia nolabait ahaztea?

**ARBUNIES.**— Ez dugu historia ahaztu nahi. Eguzki zerbait bateratu egiteko jaiotzen eta hortik atera ziren arazoak. Oraingo helburua askoz zabalagoa da, talde ekologista guztiak sartuko bait lirateke: kontserbazionistak, hirietakoak, politikoak. Errekak baliabidea izan nahi du bateratu daitezkeen gauzak aurrera eramateko, baina inori ezertara behartu gabe.

NOSKI  
JATOR

ZVLDI EROA

